



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERA EMATEN BAITZAI O HEZKUNTZA-ARLOAN ESKUMENA DUEN SAILAREN TITULARTASUNEN UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO ZUZENDARITZA-TALDEAK EBALUATZEKO PROZESUA ARAUTZEN DUEN AGINDU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI.

AZALPEN-ZATIA

Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan zuzendaritza funtzioa betetzearen ebaluazioa beharrian instituzional gisa finkatu da hezkuntza-sistemaren kalitatea bermatzeko, lidergo pedagogikoa indartzeko eta eskola erakundearen etengabeko hobekuntza sustatzeko. Indarrean dagoen araudiak aitortzen du eskola-zuzendaritza, hezkuntza eremuan metatutako ebidentziagatik, funtsezko faktorea dela ikasleen arrakastarako, hezkuntza komunitatearen kohesiorako eta ikastetxeen aldaketa eta hobekuntza prozesuei aurre egiteko duten gaitasunerako. Testuinguru horretan, beharrezkoa da hezkuntza-sistemari esparru komun bat ematea, modu sistematiko, objektibo eta gardenean arautzeko zuzendaritza taldeen ebaluazio prozesua.

Egin nahi den erregulazioak eragina du Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren titulartasuneko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen eremuan, eta zuzendaritza eginkizuna indarrean dagoen araudian ezarritako sarbide eta izendapen prozeduren arabera betetzen duten zuzendaritza taldeetara zuzentzen da berariaz. Haren irismena, beraz, hezkuntza sistema publikoaren antolamendu eta funtzio eremura mugatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoak hezkuntzaren arloko eskumenak ditu, Autonomia Estatutuan eta Estatuko oinarriko legerian xedatutakoaren arabera, eta, bereziki, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan (abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatua). Eskumen horiek baliatzean, Hezkuntza Administrazio autonomikoari dagokio zuzendaritza-eginkizunari buruzko alderdien arau eta erregelamendu garapena egitea, ebaluazioa barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legean aurreikusitakoarekin bat etorritik, betiere Estatuarekiko eskumen banaketa errespetatuz eta lurralde historikoen berezko eskumenei kalterik egin gabe.

Identifikatutako premia ezin da behar bezala bete antolaketa izaerako tresnen edo barne jarraibideen bidez; izan ere, zuzendaritza funtzioa ebaluatzeko prozesuak funtzio hori betetzen duten pertsonen eskubide, betebeharrak eta igurikimen profesionalei eragiten die, bai eta administrazio organoen jarduerari ere, hala nola Hezkuntza Ikuskaritzari. Horregatik, ezinbestekoa da segurtasun juridikoa, tratu-berdintasuna, prozeduraren gardentasuna eta hezkuntza sistema osoan aplikatzeko homogeneotasuna bermatuko duen arau-bide batera jotzea.

Ikuspegi materialetik, hezkuntza sistemaren egungo testuinguruak lidergo pedagogikoa indartzeko, ebaluazio-kultura bultzatzeko eta ekitatetik, inklusiotik eta ikaskuntzen hobekuntzatik eratorritako erronkei erantzuteko beharra du ezaugarri garapen profesionalera bideratutako ebaluazio-eredu egituratu bat izatea eskatzen du. Ikuspegi juridikotik, zuzendaritza funtzioa ebaluatzeko betebeharrak aitortzen duen arau esparru orokor bat badago ere bereziki otsailaren 28ko 29/2023 Dekretuaren bidez, gaur egun ez dago ebaluazio horren prozedura, irizpideak, faseak eta ondorioak zehatz-mehatz garatuko dituen erregulazio espezifikorik, eta,





beraz, beharrezkoa da esparru hori osatu eta zehaztuko duen erregelamendu xedapen bat onartzea.

Prozeduraren instrukzio fasean izan daitezkeen erregulazio aukerak sakonago aztertzeari kalterik egin gabe, uste da agindu bat egitea dela tresnarik egokiena zuzendaritza taldeen ebaluazio prozesua arautzeko, kontuan hartuta haien antolamendu-izaera, eremu subjektibo mugatua eta goragoko mailako arau baten erregelamendu garapena egiteko helburua. Beste aukera arautzaile batzuk geroago aztertu ahal izango dira, sistemaren bilakaeraren eta proiektatutako araua aplikatzearen ondoriozko emaitzen arabera.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT

Artikulu bakarra.- Arau-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzea.

Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren titulartasuneko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeak ebaluatzeko prozesua arautzen duen Hezkuntzako sailburuaren agindu-proiektua egitea.

1. Arauaren xedea eta helburua

Etorkizuneko aginduaren xedea izango da unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan zuzendaritza funtzioa betetzeko ebaluazio prozesua arautzea, eta haren aplikazio eremua, ebaluazio helburuak, prozesuaren faseak, balorazio irizpideak eta tresnak, organo arduradunak eta emaitzen ondorioak ezartzea.

Ebaluazioaren helburua bikoitza izango da: alde batetik, prestakuntzakoa, zuzendaritza funtzioa etengabe hobetzera eta lidergo pedagogikoa indartzera bideratua; eta, bestetik, ziurtatzailea, agintaldiaren amaieran zuzendaritza taldeen jarduna egiaztatzerako bideratua, indarrean dagoen araudian aurreikusitakoarekin bat etorriz.

2. Bideragarritasun juridiko eta materialari buruzko balioespena

a) Bideragarritasun juridikoa

Proiektatutako erregulazioa Euskal Autonomia Erkidegoak hezkuntzaren arloan dituen araugintza eskumenak erabiliz ematen da, eta bat dator Estatuko oinarritzko legeriarekin, bereziki Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoarekin (abenduarien 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatua).

Era berean, araua Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legearen eta otsailaren 28ko 29/2023 Dekretuaren erregelamendu-garapen gisa eratzen da (29/2023 Dekretua, otsailaren 28koa, zuzendaritza-funtzioa eskuratzeari, prestakuntza jasotzeari, hura ebaluatzeari eta aitortzeari, eta huraosatzen duten karguak uzteari buruzkoa), kontraesanik sartu gabe goragoko mailako arauarekin, eta eraginik izan gabe beste xedapen batzuei erreserbatutako gaietan.



b) Bideragarritasun materiala

Ikuspegi materialetik eta antolamendukotik, bideragarritzat jotzen da etorkizuneko agindua aplikatzea, lehendik dauden administrazio-egituretan oinarritzen baita, bereziki Hezkuntza Ikuskaritzan, eta ikastetxeen plangintza-, jarraipen- eta ebaluazio-prozesu arruntetan integratzen baita.

Arauk eragin positiboa izango du hezkuntza-sisteman, ebaluazio-kultura, zuzendaritza-taldearen garapen profesionala eta hezkuntza-kalitatearen hobekuntza bultzatzen baititu, neurriz kanpoko administrazio-kargarik sortu gabe.

3. Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak

Etorkizuneko agindua garatu eta zehaztuko du zuzendaritza funtzioaren ebaluazioaren arloan indarrean dagoen arau esparrua, bereziki 29/2023 Dekretuan xedatutakoa (29/2023 Dekretua, otsailaren 28koa, zuzendaritza funtzioaren sartzeari, prestakuntza jasotzeki, hura ebaluatzei eta aitortzeki eta hura osatzen duten karguak uzteari buruzkoa).

Era berean, agindu berria onartzeak berekin ekarriko du berariaz indargabetzea 2012ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendaritza funtzioaren ebaluazioa arautzen zuena, egun indargabetuta dagoen 2009ko Dekretua garatzeko emana. Agindu hori indargabetzea beharrezkoa da zuzendaritza taldeen ebaluazio araubidea indarreko arau esparru berrira egokitze, jada gauden antolamendu eta eskumen ereduaren oinarritutako erregulazioak aldi berean egotea saihesteko, eta hezkuntza sistema publiko osoan zuzendaritza funtzioa ebaluatze sistemaren koherentzia, segurtasun juridikoa eta homogeneotasuna bermatzeko.

4. Herri-administrazioen aurrekontuetan izango duen eragina

Ez da aurreikusten arauak gastu publikoa nabarmen handitzea ekarriko duenik, Hezkuntza Sailaren lehendik dauden giza baliabideak eta baliabide materialak erabiltzean oinarritzen baita. Nolanahi ere, etorkizuneko aginduan aurreikusitako jarduketak indarrean dauden aurrekontu baliabideen barruan garatuko dira, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, antolamendu doikuntzak egitea, ebaluazio prozesua hobeto ezartzeko.

5. Egin beharreko izapideak eta txostenak

Agindu-proiektua izapidetzean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitako nahitaezko txostenak eskatuko dira, bai eta arautzen den gaiaren arabera bidezkoak diren gainerako txostenak ere; zehazki, legezketasun-txostena eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena eskatuko dira nahitaez.

Era berean, txostenak eskatuko zaizkie arlo juridikoan, ekonomikoan eta berdintasunean eskumena duten organoei, bai eta esku-hartzea beharrezkotzat jotzen den hezkuntza-sistemako kontsulta- edo partaidetza-organoei ere. Txosten berberak izango dira Sailaren Txosten Juridikoa, Emakunderen Txostena, Hizkuntza Politikako Txostena, Funtzio Publikoaren Txostena eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren Txostena.



Era berean, jendaurreko informazioaren izapidea egitea aurreikusi ahal izango da, ekaineko 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Proposatutako erregulazioaren edukia

Etorkizuneko aginduak, besteak beste, honako eduki hauek jorratuko ditu:

- Zuzendaritza funtzioaren ebaluazioaren esparru orokorra eta helburuak.
- Aplikazio eremua
- Gaitasunetan oinarritutako ebaluazio-eredua eta garapen-mailak.
- Ebaluazio prozesuaren faseak eta horien denboralizazioa.
- Hezkuntza komunitatearen jarraipenerako, autoebaluaziorako eta informazio-bilketarako tresnak.
- Hezkuntzako ikuskaritzaren eta esku hartzen duten beste eragile batzuen zeregina.
- Erreklamazioen araubidea eta prozeduraren bermeak.
- Ebaluazioaren ondorioak

7. Europar Batasunaren aurreko izapideak

Egiten hasiko den xedapena ez dago Europar Batasunaren aurrean izapidetzearen mende, ez baitie eragiten Batasuneko Zuzenbidearen eremuko gaiei.

8. Idazketa elebidunaren metodoa

Arau-testua euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da, arau-xedapen orokorrak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren Erabiltzailearen Eskuliburuaren IV. eranskinean aurreikusitako metodoen arabera, eta bi bertsio ofizialen baliokidetasun juridikoa eta hizkuntza kalitatea bermatuko dira.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean,

BEGOÑA PEDROSA LOBATO

Hezkuntzako sailburua